

# Irungo iruzurra jarraitzeko gakoak

Gipuzkoako Batzar Nagusiek urtarrilaren 17an abiarazi zuten Irungo Foru Ogasunean egindako iruzurretik erator litezkeen erantzukizun politikoak aztertzeiko ikerketa batzordea. Urte bukaera arteko epea izango du, dagoeneko 8,1 milioi eurotik gorakotzat jotzen den iruzur horri buruzko ikerketa lanak egiteko.

DANIEL UDALAITZ

**AUZIARI DAGOKION IKERKETA** judizialaz kanpo, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Irungo Foru Ogasunean izandako iruzurretik erator litezkeen erantzukizun politikoak – “egitez, ez-egitez zein zabarkeriaz” – aztertzeiko batzorde berezia jarri dute abian. Duela hilabete batzuk jarri zen agerian iruzur hori, eta dirudienez 8,1 milioi eurotik gorakoa izan daiteke (8.125.106 euro). Gipuzkoako fiskoari ordaindu gabe utzitako zifra horretatik, azpilanean aritu den taldearen buruek ustez 1.638.552 euro jaso dituzte legez kontra, gutxienez. Gipuzkoako Foru Aldundiak ofizialki onartu du kopuru hori dela aipatu erakunde foralaren diru-sarreran falta dena, ustez Jose Maria Bravok zuzendutako taldeak egindako azpilanaren ondorioz. Bravo, Irungo Zerga Bulegoko zuzendari izandakoa, kartzelan dago iragan uztailaren 11z geroztik, kasua ikertzen diharduen epailearen aginduz.

Batzar Nagusien aurrera Jose Maria Bravo –auzi honetako akusatu nagusia– eta beste bost akusatuetakoa bat –Pilar Gracenea funtzionarioa– deitu zituzten. Haatik, Bravok ezezkua eman zion Batzar Nagusien aurrean agertzeari. Gracenea funtzionarioak, berriz, behin eta berriz esan zuen ez zuela inoiz susmatu Irungo Zerga Bulegoan irregulartasunik egiten zutenik.



Jose Maria Bravo, Irungo Foru Ogasuneko zuzendari ohia (eskuinean) abokatuarekin; iaeko udan, kartzelan sartu aurretik.

## Hedadura handiko sarea

Irungo iruzurra 1989tik 2004ra bitartean egin da eta, nahiz eta akusatu nagusiaren familiarteko pertsona bat edo bi baizik ez egon inputatuta, ezinezkoa da iruzurra horiek baino ez egin izana. Oso sare zabala eratu behar izan dute, eta pertsona ugariaren konplizitatea lortu, zergadunei egindako etengabeko iruzur hori ezkutuan eduki ahal izateko. Zergadunen 150 espedientetan baino gehiagotan daude irregulartasunak; horietako gehienak zerga zorrak zituzten profesional txikiak ziren. Zergadun horiek zegozkien

ordainketak egin zituzten zorrak kitatzeko, baina diru horiek ez ziren Foru Ogasunaren diru kutzara inoiz heldu, Bravoren sareak bildu baitzituen. Horregatik esaten da iruzurraren kopuru osoa 8,1 milioi eurokoa dela. Diru horretatik, sarearen buruak gutxienez 1.638.552 euroz jabetu dira, ustez.

Gogoan izan beharrekoa da iruzur jarraitu horrek iraun zuen bitartean, akusatu nagusiaren anaia den Victor Bravo, EAJko senatari ohia, Foru Ogasuneko zuzendaria zela. Horregatik diote batzuek EAJri bete-betean eragiten diola kasu honek, eta erantzukizun

IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

## Ikerketa Batzordearen 2008ko egutegia

Hau da Gipuzkoako Batzar Nagusietako ikerketa batzorderako aurreikusitako egutegia:

✓ Urtarrila: akusatuak eginbide judizialen aurrean agertzea.

Zerga Arretarako Unitatearen eta Zerga Bilketarako Unitatearen buruen agerraldiak –lehen beste izen batzuk zituzten unitateok–.

✓ Otsaila: Zerga Bulegoen zuzendariordeen, Kontuhartzaitza eta Auditoretza Zerbitzuko buruen eta Informatika arduradunen agerraldiak.

✓ Martxoa: Kontabilitate Zerbitzuko buruen, sindikalisten, aholku larien eta ikerketapean dauden espedienteei lotutako abokatuen agerraldiak.

✓ Apirila: Ogasuneko eta Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusien agerraldia. Ogasun Saileko aholkulariak.

✓ Maiatza: Foru Diputatuen agerraldia.

✓ Ekaina: Diputatu nagusien agerraldia.

✓ Iraila: Batzordearen bilerak.

✓ Urria: Deliberamendu fasearen hasiera.

✓ Azaroa: Ondorioak eta Osoko Bilkura adieraztea.

penalak eta politikoak argitzeko eskatzen ari dira. Auditoretzak eta informatika nagusi diren garaiotan, nork erraztu du, Gipuzkoako Foru Ogasunetik bertatik, sare horrek hainbeste denboraz jardun izana? Nor eta zergatik aritu da, Foru Ogasunean bertan, ez ikusierena egiten, ziur asko Foru Ogasuneko sistemaren barruan gertatzen ari ziren irregulartasunak jakitun egonik? Norena izan zen pertsona jakin batzuk Foru Ogasuneko Zerga Bilketa Zerbitzuaren barruan lanpostu estrategikoetan jartzeko erabakia, azpilanean ziharduen sareari lagun ziezaioten?

Auziaren berri izanik, zaborrak ezkutatu eta gauzak bere horretan utzi al zituzten politikari batzuek? Akusatu nagusiaren bizimodua eta etxebizitza



LAB sindikatua Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean erakunde horren zerga politika eta Irungo Foru Ogasuneko iruzurra salatzen.

alorreko negoziak ez al zitzaizkion deigarriak iruditu Foru Ogasuneko inori?

### Auzia agerian uztea

Irungo Ogasuneko iruzurra agerian geratu zenetik, LAB sindikatu abertzaleak ikerketan sakontzeko konpromisoa hartu du, azken ondorioetara iritsi arte. Horretarako, herri akusazio gisa aurkeztu du bere burua, eta Batzar Nagusietako ikerketa batzordean ere parte hartu nahi izan du, baina aukera hori ukatu egin diote. Hain zuzen ere, ikerketa batzorde horren lehen batzarrean Gipuzkoako Batzar Nagusietako egoitzaren aurrean bildu zen sindikatu abertzalea, “Iruzurrik ez! Nor da erruduna?” lelopean. Halaber, Bravori ez

penalez gain gaizkidasunarekin zerkusia dutenak ere argitzeko eskatu du. Jose Maria Bravo akusatu nagusiari eta auzian nahastutako beste funtzionarioei dagokionez, sindikatu abertzaleak eskatzen du argitu dadila nola hasi ziren Foru Aldundian lan egiten, Gipuzkoako Ogasunean hartu dituzten beste langileekin ez bezala jokatu ote zuten beraiekin, eta “non, noiz eta nork hartu zuen lan jardunen bateragarritasunaren erabakia”, funtzionario lana eta bestelako lanak bateragarri izatekoa, alegia. Ildo horretatik, jakin nahi du nola sartu zen Jose Maria Bravo Foru Aldundian, lan sustapenerako zein prozeduraren bitartez iritsi zen Irungo Bulegoko buru izatera, lanpostu horren eskakizun guztiak betetzen ote zituen, eta eskatu ote zion foru erakundeari Urdanibia zerga aholkularitzan jarduteko baimekin. Halaber, norbaitek eman beharko zion beste akusatuari, Pilar Graceneari, Administrazioako funtzionario izanik beste lanari ere eusteko baimena. Gracenea izan da Batzar Nagusietako ikerketa batzordearen aurrean deklaritzen lehena. Behin eta berriz esan duenez, ez zuen inoiz ere susmatu Irungo Foru Bulegoan irregulartasunik zegoenik.

Sindikatu abertzalearen iritziak, “laxotasunak, egin behar ziren kontrolak alde batera utzita, iruzurrari bidea erraztu dio, auzi honek agerian utzi duenez”. ■

Azpilanean aritutako  
sarearen buruak 1.638.552  
eurotik gorako kopuruak  
jabetu dira, ustez

ezik irregulartasunak kaltetutako zergadunei ere egin beharreko zenbait galdera aurkeztu zituen. Izan ere, LAB sindikatua gauzak argitu gabe auzia ixtearen beldur da; horregatik, ikertzen jarraituko du eta auzia goitik behera agerian uztea eskatu du.

Sindikatu horrentzat, bateraezintasuna funtsezkoa da, eta erantzukizun